

ZURE AHOTSA

eusko
alkartasuna
herriarenahotsa

EMAN BOTOA

Nekane Aitzelai
Diputatuaren Kongresurako
hautagaitza Gipuzkoatik

INDEPENDENTZIA
BERDINTASUNA
ELKARRIZKETA
BAKEA
EUSKARA
GIZA
ESKUBIDEAK

euskoalkartasuna.org

Euskal Herriak independentzia

ABSTENTZIOA



- Zer berri: Emakume Langileen Eguna, ekimenez inguratuta
- Entzutekuak: Soraluzeko enpresak Makina Erreminta Azokan

soraluzeko hamabostekaria **173.** alea
2008ko martxoaren 7an

pil-pilean



Pilotakadak eta gainontzekoak txapelerainoko bidean



SORALUCE

Fresaketa teknologia




SORALUCE S.Coop. • Osintxu auzoa • P.O.Box. 90 • E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel. +34 943 769076 • Fax: +34 943 765128 • Web: www.soraluce.com

SORALUCE
GRUPO DANOBAT



SOMABE

MAKINA BEREZIAK
LERRO AUTOMATIKOAK
ESTANKOTASUNAREN KONTROLA

SORALUZE MAKINA BEREZIAK S.L.L.
Mendiola industrialdea, 14-5 • Tel. 943 75 18 91 • SORALUZE




GOL

GOL industriak S.A:
Sagar Erreka, 19 45PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE



comunicación ~ eventos
corporativa ~ ilustración ~ stand
cartelería ~ tipografía ~ identidad corporativa ~ editorial ~ caligrafía
irudi korporatiboa
posterrak eta kartelak
mahaiak eta erakusketak
web
silviovaz.com

**ARRATE GISASOLA****OINATZE SILBETI**

FOBALLIAN

Kaixo Oinatze!! Baloi bat esku artian nekala ibiltzen nitzan txikittan, pozik jarduten neban egun bat bai eta bestia be bai baloiak porterixan sartzeko ahaleginian. Eskolarteko ekipue-tan baiña ez zeguan neretako lekurik; mailia bestiena bestekua, hankartia barriz diferentia. Zapatu goizetan, gelako mutilak foballian zelan jarduten zeben ikustera gerturaten nitzan. Kanpuan kanpotik, kanpora sartzeko noiz esango zesten zain pasatu zan garai haura. Ezin neban ulertu, baiña heziketak holan hazi gaittu eta amorrua barruan bazan be, ez neban genero zapalkun-tziakin lotzen. Neska artian jokatzeko egunak heldu jatazen. Hau poza! Kamiseta eta fraka motzak jantzitta bizitzako egun politt askuak gogoratzen dittut kanpo txikixetan. Berandua-go haundira, kanpotik ikusten horrenbeste denbora pasatu neban futbol zelaira; entrenatu, gorputza astindu, lagun arte giro gozuaz gozatu, maila haundietan jokatzera iristeraino. Jokalari profesionalen kontra jokatzeko auke-ria be izan neban, aldaketak bazetozela usai-teraino; dana dala, bardinttasuna urrutitxo ikusten zan, eta gaur holan konfirmatu dot. Berriako eskutitz batek barrero denbora harek ekarri destaz gogora. Eibarko futbol taldeko neska batena, “2.mailan” aritzen dana, kilo-metraje eta beste minimo batzuk eskatziarren aztakeriak entzun bihar izan dittu gaur be, 2008xan. Noiz arte joko zelaixan kanpotik bi-titzera kondenatuak? 🌀

Noiz arte zelaitik kanpora kondenatuak?

Arrate Gisasola

Parekidetasuna behar-beharrezkoa dugu

Oinatze Silbeti

Kaixo pitxin!! Oraingoan galdera zuzena egin didazu eta erantzuteko ez oso erraza. Arrate, tamalez, desberdintasunak jaiotzen garen unetik markatzen dizkigute. Zergatik jantzi neska arrosaz eta mutila urdinez? Zergatik ezin diogu haurrari nahi diogun izena jarri? Zergatik mutikoak ezin du pan-pinarekin jolastu? Jaiotzean dagoz-kigun rola definitzen dizkigute, eta haurtzaro eta nerabezaroan are gehiago. Neskak jolastokiko ertzean aita eta ametara jolasten, zaintza lanak norenak izan behar duten markatuz; mutikoak berriz, jolastokiko espazio handiena hartu eta baloiari ostikoka, nor baino nor hobe. Adibide hutsak dira, baina detailtxo hauen aurrean ezer gutxi egiten denaren susmoa daukat; gure hitzetatik hasi eta ekintzetaraino, inkontzientean daramagu banaketa. Nagusitan jendea kontzientziatu beharra dagoela, plan bat martxan jarri dutela... Guztiak behar-beharrezkoak dira, baina benetan jaiotzen garen momentu-tik landu eta bizi beharrekoak. Heziketa erro-errotik aldatu beharra daukagu. Arrate, bene-tako gizarte justu bat nahi badugu, gizon eta emakumeen arteko parekidetasuna behar be-harrezkoa dugu, bestelako aldaketak alperrik izango dira. Gaiaren garrantziaz oharturik, parekidetasuna alorrez alor landu beharrekoa da, egunero- egunero zapalkuntzarik gabeko gizartea borrokatuz, eraikiz. Martxoaren 8an ikusiko dugu elkar, muxu handi bat eta gora emakumeon borroka!! 🌀

Goguan hartzeko

Atzoko hazia ez da biharko uzta

Esaera zaharra



GUTUNAK

Euskal Herriak independentzia. Abstentzioa

Izan ala ez izan. Horra hor, labur esanda, hauteskunde hauetan jokoan dagoena. Espainiako Konstituzioa versus Euskal Herria. Morrontza versus askatasuna. Ukazioa, zatiketa eta inposaketa versus Independentzia.

Inoiz baino ageriago geratu da Euskal Herrian bi proiektu politikoren arteko talka bizi dugula: Euskal Herriaren eskubideak aitortu eta bermatuko dituen marko demokratikoa, independentzia barne, eraikitzea, edota, Euskal Herria zatituta eta Espainiako Konstituzioaren kaiolan mantentzea. Hori da PSOEek, PNV eta NaBairekin egin nahi duten iruzurra.

Paretik kendu nahi dute herri hau independentziaren atarian jar dezakeen eragile bakarra, Ezker Abertzalea.

Kolpatuko gaituzte, espetxeratuko dituzte zuzendaritza politikoak eta militante independentistak, torturatuko dituzte gazteak, ilegalizatuko gaituzte, eta abar luze bat, baina ez dute isilaraziko herri honen ahotsa.

Aski da! Planto egiteko unea heldu da. Oraingoan bai, oraingoan olatua hartu, txanpa egin eta helmugara iristeko garaia heldu zaigu. Milaka eta milaka ahots eta indar abstentzioaren alde bilakatuko ditugu.

Hauteskunde hauetan baietz esan behar diogu Euskal Herriaren eskubide nazional eta sozialei, baietz irtenbide demokratikoari, baietz Euskal Herriaren etorkizunari. Hori lortzeko abstentzioa dugu bidea, oraingoan ez dugu bozkatuko. Hau da modurik onena estatu espainol faxista honi planteatu egiteko. Gurea, proposamen baikorra da garai ezkor hauei aurre egiteko.

SORALUZKO EZKER ABERTZALEA

Pil-pilean Aldizkariko hurrengo alea martxoaren 18an kaleratuko da. Aste Santuak direla eta, aurreratu egingo da.



◀ Hilaren 2an batu ziren bazkaltzeko Lasa jatetxean, lehenengo alditik 50 urte pasa direla ospatzeko. Zorionak eta urte askotarako!

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldirikako esanen eta iritzien erantzunik.

Pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** pilpilean@euskalnet.net **Erredakzio burua:** Arianne Unamuno **Erredakzio batzordea:** Enara Agirre, Jon Basauri, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 1.920 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



bittartetik



Nerea Isasti

Bidegabekeria izugarria

Komunikabide gehienek arreta Estatu Batuetako hauteskundera, Israeleko gatazkara edota Kolonbiako arazora desbideratzen duten bitartean, badago nazioarteko berrien artean, berria ez den bat. Saharar Errepublikari Arabiar Demokratikoa (RASD).

30 urte baino gehiago dira, 150.000 errefuxiatu Tindufen, Argelgo basamortuan pilatuta bizi direla, hauek 11.000 haurrak. Frente Polisarioak milioi bat saharar dispertsaturik daudela dio.

1884an Espainiak mendebaldeko Sahara kolonizatu zuen. 1975ean, Espainiar gobernua Saharari independentzia eman beharrean, lurraldea Maroko eta Mauritania artean banatu zuen. 1979an Mauritaniak eta RASDak bakea sinatu zuten, baina Marokok Mauritaniak utzitako lurraldea hartu zuen.

Gauregun, saharar herria autodeterminazioaren zain dago. Nazio Batuek errolda sinaturik dute, baina Marokok errolda hori hantitu egin nahi du marokarrekin, benetasahararrak ez direnekin, erreferenduma irabazteko.

Bidali diezaiozun Saharako herriari bertatik gure elkartasuna.

Maroko Saharatik at, autodeterminazioa Sahararentzat!

Zer eraman dozu erakusteko?

Guk fresadorak egiten ditugu eta hiru modelo eruan dugu. Horretako batek, eolikoko buje bat dauka eta zortzi metro inguruko altueria. Maketa bat be badaukagu, eolikoko piezak mekanizatzeke Lakuntzan zabalduko dogun taillarrana.

Ze garrantzia dauka berrikuntzak zuen enpresan?

Haundixa. Kontuan euki %90 esportatu egiten dogula Alemaniara, Italiara... eta han exigentzia eta teknologia maila altuak dira. Aurre egiteko Ideko Zentro Teknologikua daukagu Elgoibarren.

Nazioartian ze lehia daukazu?

Konpetidoriak Euskal Herrian bertan, Alemanian eta Italian daukaguz batiz bat. Baina gero eta gehiago dira.

Makina Erreminta arlua osasuntsu dago?

Sektore ziklikua da. Hamar urtero krisi haundi bat egoten da eta hori 2001-2005 bittartian egon zan. Gero enpresak inbertsiñuak martxan ipini zittuen eta 2007-2008 urtiak onak izango dira.



Rafa Idigoras

Soraluze Kooperatibako gerentea BECeko Makina Erreminta Azokan



Rafa Idigoras ezkerrean, Rafa Barrenetxearekin (Danobateko zuzendari orokorra eta MCCko lehendakariordea), fresadora handiaren ondoan.

Noiztik ezagutzen dozu Makina Erreminta Azoka?

Oin 47 urte egin zan lehenengoa eta ordutik urte bittik behin egiten da. Urtero etorri izan gara gu, ediziño danetan. Aurten 25. ediziñua da eta omenaldi bat gertatu dabe, baita geuretako be urtero etortzarren.

Beste azoka batzuetara juaten zarie?

Urtian hemezortzi bat ekitzen ditugu. Alemania, Italia, Txina, India, Errusia... Leku askotara juaten gara.

Plazentziatik Unamuno eta Elea Ganter enpresak be juan dira. Bisitatu dozuez?

Bai, egon gara beren estanetan. Beti izaten dan moduan, kanpua garenian ahalegina egiten dogu alkarrekin egoteko. ☺

“Esfortzua inbertsiñuetan egin biharko litzake”

Belarrak
Loradenda eta belardenda

"Aitaren egunerako eskariak telefonoz ere jasotzen ditugu"

T. 943 75 30 11



HNOS. BENITO ANAIAK



Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. y F. 943 75 20 43
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Bizilagunen premiak ezagutzeko auzoz auzoko bilerak

SORLUZE PLACENCIA DE LAS ARMAS

- Martxoak 14:** Ezosi Bidea
- Apirilak 1:** Gabolatx
- Apirilak 3:** Loralde-Arraikua
- Apirilak 23:** Kalebarren-Santa Ana-Olea
- Apirilak 25:** Estazioa-Kalonge-Zeleta
- Maiatzak 6:** Baltegieta-Rabal
- Maiatzak 8:** Etxaburueta-Elizburu
- Ekainak 3:** Serafin Atxotegi-Gipuzkoako Etorbidea
- Ekainak 5:** Atxuri-Errekalde

Hilabete honetan hasi eta lekainera bitartean, herriarrekin auzoz auzo batuko da Udaleko Gobernu Taldea. Auzo bakoitzak dauzkan premia eta beharrak, tokian tokiko gabeziak eta udal zerbitzuen akatsak zeintzuk diren jakiteko, eta Udalaren eguneroko zeregina ezagutzera emateko egingo dira bilerak.

Egutegia osatuta

Auzo bakoitzari dagokion eguna hurreratu ahala, jakinaraziko zaion arren, bilera egutegia osatuta dago. Martxoaren 14ean Ezosi Bidekoen txanda izango da, arratsaldeko 7etan, Udaletxeko Saio Aretoan. ☺

Animalien abileziak

Hegazti harrapariak, sugeak, ugaztun bereziak... oso gertu izan zituzten Txuri Urdin Elkarteak antolatutako ikuskizunera hurreratu zirenek. Hegaldiak egiten eta umeekin jolasean ipini zituzten animaliak eta haien buruzko azalpenak eman.



Sahararekiko elkartasuna



Erakunde-adierazpena adostu du Udalbatzak Saharar Errepublikar Arabiar Demokratikoaren aldarrikapenaren 32. urteurrena dela eta. Urteurreneko egunean ikurriaren ondoan ipini zuten bandera sahararra Udaletxeko balkoian.

Maisuen etxearen erabileraz

PSE-EE alderdiak prentsa ohar baten bitartez jakinarazi du, bere iritziz, maisuen etxea berri eta alokairu sozial moduan erabili beharko litzatekeela lehenbailehen. "Okupatuak dauden etxebizitzak ez husteagatik" kritikatu du Udal Gobernu eta gogorarazi nahi izan du "ura eta argindarra Udaletxeak ordaintzen dituela".

Ibilgailuen zergak ordaintzeko

2008. urteari dagokion Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren Errolda onartuta, ordainketak egiteko epea zabalik dago, eta maiatzaren 5ean bukatuko da. Ordainketak aurrezki kutxa eta bankeetxeen bitartez egingo dira.

Hurtzaindegi zerbitzua

Udalak, ikastetxearekin eta guraso elkartearekin batera, datorren ikasturtetik aurrera eskola ordutik kanpoko zaintza zerbitzua jartzeko aukera aztertzen dihardu. Zainketa zerbitzuak goizez, 9ak aurretik, eta arratsaldean, 16:30etatik aurrera, izango liriteke. Eskolarik gabeko egunetan egun osoko zerbitzua eskainiko litzateke.

Familia bakoitzaren beharrezko ordutegi eta egutegien berri izateko galdeketa egingo dute, eta horren arabera antolatzeari ekin. Zalan-zak argitzeko telefonoa hau da: 943 75 30 43 (Mikel).

Jubilatuaren Batzarra

Datorren martxoaren 13an arratsaldeko 5etan bazkideen batzarra egingo dute Itxaropena Jubilatutako Etxean eta lehendakari berria aukeratu dute.

EArekin harremanetan jartzeko

Soraluzeko Eusko Alkartasunak telefono bat eta helbide elektronikoa ipini ditu herritarren eskura, kexak eta iradokizunak bideratu ditzaten. 943 75 18 48 posta elektronikoa: easoraluze@gmail.com

Emakume Langileen Eguna ospatzeko ekimenak

Martxoaren 8a Emakume Langileen Nazioarteko Eguna da. Horren harira egitaraua prestatu du Udaleko Emakume Batzordeak.

Bihar, zapatua, eguadiako 12etan trikitilariak kalejira egingo dute. **12:30ean,** elkarretaraztea egingo da Plaza Zaharrean eta ondoren emakumezkoek herri kirolen erakustaldia egingo dute. Iluntzeko **19:00etan,** kapi-llan, "Yo no soy esa" bakarrizketa eskainiko du Idoia Sanchezek.

Ipuin kontaketarako tailerra

Egitariaren barruan, datorren asterako guraso, irakasle eta hezitzaileentzat ipuinak kontatzen ikasteko tailerra ere antolatu dute. Urtxintxa eskolaren eskutik, bi orduko saioa izango da eta tartean emakume eta gizonezkoen parekidetasuna nola landu ikasiko dute. Informazioa jaso edo izena eman nahi duenak Udaletxera jo beharko du.

Langabezia, gizonezkoena baino altuagoa

Debabarrean langabetuen %66 emakumeak izaten dira. Otsaileko datuen arabera baina, %81 liriteke. Sorluze 137 dira Eibarko INEMeko bulegoan izena emanda lan bila dabiltzanak, otsaileko datuen arabera. ☺



ARRANO
taberna

etorri eta gozatu giro euskalduna eta sanua

etxera

IÑAKI IÑARRA
HARATEGI ETA URDETEGIA

CERTICAR
EQUIVOCADO GANADU-HARAGIA
CARNÉ DE VACUNO CERTIFICADO

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Sorluze

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

MENDIZABAL
okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORLUZE

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1. ezk. 20590 Sorluze GIPUZKOA
Tlfonua: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

Juan Mari
Arraindegia

Eguneroko arraina eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Sorluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69

Txapelerrainoko bidean

Frontoian pilotakadak ematen ikusten dugu Aritz Laskurain, baina Eskuz Binakako Txapelketan azkenerraino iristeko betebeharrak gehiago ditu pilotari profesional batek. Elikadura, gorputzaren zaintza, prentsa... Aste osoko lana partidu bakarrerako.




1

FISIOTERAPEUTARI BISITA. Txapelketa sasoiaren astean behin joaten da fisioterapia saioa egitera. Hipertermiako makinaren laguntzaz eskuetako zirkulazioa hobetzea lortzen du.



2

GORPUTZA BEROTZEKO ARIKETAK. Partiduaren egunean bertan, sei bat ordu aurretik gorputza berotzeko ariketak egiten ditu (korrika, luzaketa...), partidua hasterakoan martxari azkar heltzeko.



4

TAKOAK ETA TITAREAK. Pilotari guztiek jantzen dituzten takoez gain, gomazko titare bigunak ipintzen ditu hatz-punta guztietan, babesgarri modura. Fernando Goñik ere halaxe egiten du.

DIETA MAKROBIOTIKOA. Arraina eta haragia ere jaten ditu, baina makrobiotikako oinarriak jarraitzen ditu: zereal asko, esnerik ez, barazki gutxi, azukrerik ez... Partida luzei hobeto eusteko balio dio. Jatordua partidua baino lau ordu lehenago bukatzea du ohitura.



3



5

LAGUNARTEAREN ANIMOAK. 170 lagun batu dira sortu berri den Laskurainen lagunartera. Bere aldeko kamisetak jantzi, pankarta eseki eta Aritzten alde ohiuka jarduten dute partiduz partidu.



6

LEHIA HASI DA. Aritzek TitinIII du bikote txapelketan, lau t'erdiko txapeladuna hain zuzen. Gonzalez eta Barriolaren aurka estuasunak pasatu zituzten, biek ala biek.



7

INDARRAK BATZEN. Lau aldiz aulkian eseri eta tragoxka bat hartzeak beste balio dute botileroaren aholkuek. Kanpotik begira dagoenaren ikuspuntua beharrezkoa izaten da.



8

PRENTSA ATZETIK. Ohitu da Laskurain prentsa-ekin partiduen gora-beherak komentatzen. Euzkitzek behintzat hitz onak gordetzen ditu Aritz buruzko aipamenak egiteko.

Azaleko argazkia: Aspepelota.com

ZER TRISTEN DOTSAZU?

Zenbateko laguntzia emon bihako leuke herrixak herrialde pobretuen garapenerako?

Udalak urtero herrialde pobretuen garapenerako diru-laguntza ematen du. Aurten ere aurrekontu guztien %0,2 baino gutxiago bideratzea aurrikusita dago horretarako.

ANA LETE
Irakaslea



EGOITZ PORTU
Kiroldegiko langilea



LUPE GOMEZ
Saltzailea



PABLO MURGOITIO
SAPAKo langilea




Zenbat ez dakit, baina diru gehixago emon bihar dala bai. Oin-diokan atzeratuta bagabiz, ONUk erabakitakotik (0,7) berrikusi eta igo egin biharko da pixkatxo bat, biharrezkua da eta.

Ahal dan eta gehixen Amon bihar jakuela uste dot nik. Gutxienez 0,7 emon bihar bada eta 0,2ra ez bagara heltzen, ez jata ondo pentzatzan. Ahalegindu biharko ginake. Baina Udalekuek jakingo dabe zegaittik ez dan emoten.

Zaila da baloratzia zer dan justua. Hemen jende asko dago biharrak daukana, eta hori konpondu biharko litzake lehenengo eta gero kanpora emon. Guria zaindu bihar dogu lehenengo.

Dirua juan bihar ez dan lekura juaten da, dana zaku berdinetik etorri arren. Nik badaukat pertsona bat etxian hiru urtian eta ez naiz GKE bat, baina laguntzaile sozialak diñue nere soldatiakin nahikua dala.

KOMIKIXA



Durangoko orfeoia zapatuan

Durangoko orfeoia kontzertua eskainiko du Elizan bihar, zapatua, 20:00etan. 7 kantu abestuko dituzte, horietako batzuk Mikel Nuñez pianistak lagunduta: Anima Christi (A. Chérion), Tantum Ergo (A. Bruckner), Ave Maria (J. Busto), Benedictus (J. Rheinberger), Aita Gurea (A. Madina), Miserere Breve (H. Eslava) eta Salve Regina (H. Eslava).



Gaztetxeko egitaraua

Martxoan zehar ekitaldi kulturalak eta bestelakoak antolatu ditu Soraluzeko Gaztetxeak. Datozen egunetakoak hauek izango dira:

Domeka 9, 19:00etan: "Sopas sin Sorber" poesia emanaldia.

Eguena 13, 21etan: "Cuentame que te paso desde el 86" eta "Desalojo del asilo de Orereta" bideo emanaldia.

Barixakua 14, 22:30ean: "Material Rechazado" eta "Decepcion Rock" taldeekin musika kontzertua.

Astelehena 17, 19:00etan: "Transgenikuak" bideoaren aurkezpena eta hitzaldia.

Bost musikari gaztek zilarrezko domina lortu dute Piano Jaialdian

Soraluzeko Musika Eskolako ikasleek Andoainen egin zen Piano Jaialdian parte hartu zuten otsaileko azken astebukeraren. Alejandra Rodriguez, Javier Arana, Maialen Oregi, Elsa Berueta eta Mirena Alberdik zilarrezko domina eta diploma bana jaso zituzten.



Udaberriko kontzertua martxoan

Datorren eguaztenean, hilak 12, Udaberriko kontzertua eskainiko dute musika eskolako ikasleek. Bakarlariak, biko-

teak eta taldeak izango dira entzungai, baita musika tailerreko ikasleak, abesbatza eta banda ere. Elizan izango da arratsaldeko 19:45ean. ☺

Musika Eskolako ikasleak sariak soinean dituztela.

Kontzertua antolatzeko deia herriko musikariei

Plaentxi Motoclub elkarteak maiatzaren 24 eta 25ean 13. Motor Kontzentrazioa antolatuko du eta herriko musika taldeei dei egiten die denen artean zapatu gauean kontzertu bat antolatzeko. Iluntzeko 20:00etatik

goizaldeko 3:00etara iraungo luke emanaldiak. Jotzeko interesa duten taldeek **687 85 61 30** telefono zenbakira dei dezakete programaren eta baldintzen berri izateko. ☺



Sagardoak eta musikari lagunduta

Trikitilarien doinuekin dantzan eta kantuan egin, Gaztelumendi anaien bertsoak entzun eta sagardoak lagunduta bazkaltzeko aukera izan zuten 50 lagun inguruk Pilean Euskara Elkarteak antolatutako irteeran.

Karta enkarguz, jaunartzeak eta bataioak

EDURTZA Kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua
Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Javier Alonso Zelaieta
MEDIKU ESTOMATOLOGGA
K. Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Telf. 943 75 16 13

GILA TABERNA
Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik
Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

KM Desing
Diseinua eta Sormena
Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: M. J. Aldazabal

NEGU GOGORRA

1956ko otsailan 12xan etaratako argazkixa da, Plaza Zaharrian. Edur asko egin zeban negu hartan eta katiuskak jantzitta urten bihar izan zeben gizonok kalera.

Banko gainean: Pablo Ugalde, Pedro Egaña eta Vicente Bergara.

Beheran: Manuel Moran "Gaspar", Antonio Maiztegi "Txurruken", Jose M^a Aldazabal "Mayo", Gerardo Ezenarro "Urzelai" eta Jose Mendibil "Kojua".



JAVIER EZENARRO ARTOLAZABAL

2008KO OTSAILAREN 5EAN HIL ZEN
65 URTE ZITUELA

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana. Eskerrik asko danoi bizi-razitako momentu on guztiengatik, eskerrik asko zinen bezelakoa izateagatik. Beti egongo zara gure bihotzean, maite zaitugu. Adiorik ez.